

Ondare Arkeologikoa

Kulturaren Euskal Planaren Ondare Arkeologikoaren
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

Indice

AMIA ANALISIA	3
INDARRAK	3
AHULEZIAK	5
AUKERAK	9
JARDUERA-ILDOAK	10
LEHENTASUNAK	12

AMIA ANALISIA

INDARRAK

Trebakuntza eta ikerkuntza:

- Ikerkuntza arkeologikoan jarduteko ohitura.
- Zer hauek dituen dokumentazio-zentroa¹:
 - EAEko Kultur Ondarearen irudi-artxiboa.
 - Liburutegia
 - Planoteka
 - Memoria eta ikerketa arkeologikoen artxiboa
- EAEko Kultur Ondarearen katalogoak eta inbentarioak, baita hobiak bilatzeko Informazio Geografikoko Sistema ere¹
- Gero eta jende gehiago lanean arkeologian.

Babesa:

- EAEko Kultur Ondarea babesteko, eremu arkeologiko kalifikatuetan, eremu arkeologiko inbentariatuetan eta ustezko eremu arkeologikoetan balioetsi eta sailkatzea ondasunak.¹
- Obra publikoen % 1 kudeatzea, EAEko Kultur Ondarea zaindu, sustatu eta balioesteko.¹

Kontserbatzea eta leheneratzea:

¹ Adostasun handia dago elementu horren garrantziaz; 'indartzat' jotzeari dagokionez, ordea, apenas dagoen adostasunik.

- Material arkeologikoak kudeatzeko, hainbat zentro eta museo gordetegi bihurtzea. Horretarako, materialak haietara eramateko baimenak eman behar dira, eta inbentarioak egin.
- Hirigintza eta lurralde-antolamendua kontrolatzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-plangintza eta lurralde-antolamenduko aldaketa guztiak aztertu behar dira.
- Lurralde Plan Sektoriala egitea: zaindu beharreko ondasunen zerrenda eta araudiak agintzen duen esku-hartze mota.²

Balioestea eta ezagutaraztea:

- Hedapena, kultur premiak asetzeko eta kontzientzia sozial handiagoa izateko. Horretarako bitartekoak:
 - Web orria, Ondasun Kalifikatuen fitxetara sartzeko.
 - Katalogoak argitaratzea.
 - Jarduera arkeologikoen urteko laburpenak argitaratzea Arkeoikuskan.³

Azpimarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- Lanean ari diren arkeologoek dinamismoa eta lanerako gogoia.
- Udalerrien kontzientzia handia.

² Adostasun handia dago elementu horren garrantziaz; 'indartzat' jotzeari dagokionez, ordea, apenas dagoen adostasunik.

³ Elementu hori indartzat hartzeari dagokionez, adostasun oso mugatua dago (jarduera arkeologikoen urteko laburpenak Arkeoikuskan argitaratzea, besterik ez). Gainerakoan, ez dago adostasunik.

AHULEZIAK

Prestakuntza eta ikerkuntza:

- Behar hainbat kontrolatu gabeko jarduera arkeologikoak:
 - Helburu jakinik gabeko indusketa sistematikoak, historiaren ezagutza hobetzeko proiektuetan bideratu gabeak.
 - Premiazko indusketa okerrak, Ondare Ondasuneko enpresek ordaindutako arkeologo langabeek eginak.
 - Hainbat lagindun prospekzio, aurrera segitzeko prestakuntza eta baliabiderik ez duten taldeek eginak. Prospekziogileen aurkikuntzak ez badu eragiten haiek nahi adinako indusketarik, komeni baino gehiago sakontzen eta luzatzen dute laginketa.
- Ondarearen Ikerketa Zentro ugari daude EAEn (gehiegi, agian, kontuan izanik lurraldearen zabalera eta finantziazio-bideak), elkarrekin harremanetan izaten diren arren.⁴
- Arkeologia-kontzeptu batzuk ez dituzte behar adina eguneratu arkeologoek. Hainbat inertzia sortu ditu horrek gaiei, kronologiari eta abarri dagokienez. Eguneratu beharra daukate arkeologoek. Metodologia arkeologikoari buruzko etengabeko prestakuntza emateko ikastetxe baten premia dute lanean ari diren arkeologoek.
- Ez dago behar adina ikerkuntza-zentro arkeologiaren zientzia lagungarrietan trebatzeko. Ikerkuntza Arkeologikoen Zentro Nazionala sortzeko premia.
- Ikerkuntza-proiektuei atalka ekiteak hainbat ondorio kaltegarri eta sinergia-galera eragiten ditu. ("Ikerkuntza-proiektuak baimendu behar dira, hau da, ez da atalka eman behar ez

⁴ Adostasun handia dago elementu horren garrantziaz; 'ahuleziazat' jotzeari dagokionez, ordea, apenas dagoen adostasunik.

finantziatorik ez baimenik... Proiektuaren amaiera-epea finkatu behar da baimena eman aurretik. Argitalpena izango da proiektuaren azken produktua").

Babesa:

- Aurretik proiekturen batera bildu gabeko indusketak (behar duten babesik gabeak, beraz).
- Indusketa- eta erregistro-metodoa: metodologia hobeto sistematizatu eta homogeneizatu beharra. Sarritan (sarriegi), inongo irizpide eta metodologiarik gabe egiten dira indusketak. Txostenak egiteko protokoloa ere hobetu beharra dago.
- Ez dago ikasketa-planeri laguntzeko eta ondarea babesteko mezenasgoa sustatzeko politikarik.

Kontserbatzea eta leheneratzea:

- Finantziario-baliabide gutxi dago induskatu ondoren materialak tratatzeko, gordetzeko eta ikertzeko. Izan ere, era askotako espezialistek hartzen dute parte prozesuan, eta bakoitzak alderdi jakin bat aztertzen du, bere metodologia propioarekin.
- Lurralde Historikoen Legeaz geroztik foru-aldundiek duten jarrera da beste ahulezia bat. Garai batean, eskumen 'esklusiboak' zituzten aldundiek ondare arkeologikoa zaindu eta leheneratzeko, eta, hala bazegokion, indusketak egiteko ere. Gerora, ordea, goragoko erakundeen agintea onartu behar izan zuten. Araudi bateratu horretan, aldundiek ere badute eskumenik Jaurilaritzaren arauak garatu eta betearazteko.
- Memoria edo txostenak gaizki idaztea, haien edukia ulergaitz bihurtzearen.. Larria da arazoa, memoria izaten baita, batzuetan, proiektuen azken emaitza.
- Geldirik dago 'hobi handiak' izendatzeko proiektua.

Balioestea eta ezaugarraztea:

- Beharbada, proiektuen emaitza ez da behar bezala ezagutarazten: bertako edo nazioarteko zientzialarientzat egiten dira txostenak askotan, ez gizarte osoarentzat.
- Arkeologia-lan askoren (gehiegiren) emaitzak plazaratu gabe daude.
- Aldizkari gehiegi dago, kontuan harturik gure herrialdearen tamaina eta finantziazio-bideak.⁵
- Esku pribatuetan daude erakunde publikoek finantzaturako hainbat arkeologia-lanen dokumentazio grafiko eta idatzia. Dokumentazioaren zati handi bat arkeologoek etxe partikularretan geratzen da, eta ez da dokumentuen kopiarik uzten erakunde publikoen egoitzetan.
- Materialak gordetegietara eraman arren, indusketaren zuzendariak ez ditu gero argitaratzen. Hortaz, ondare-balioaren zati handi bat galdu egiten da. 341/1999 Dekretuak arautzen du hori, askotan araua betetzen ez bada ere.

Azpitarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- ("Txosten bigun" ugari egiten dituzte arkeologoek). Ondare Ondasuneko enpresei, izan ere, "ondasunak sortzen duen oztopoa kentzen" laguntzen dien txostena interesatzen zaie.
- ("Txosten bigun" ugari egiten dituzte arkeologoek). Diruz ordaintzen dira txosten horiek. Ordainketan ez da sartzen, ordea, materiala garbitzea, zigilatzea, ordenatzea eta sailkatzea.⁵
- "Txosten bigun" ugari egiten dituzte arkeologo langabeek, premiazko indusketetako interes ekonomikoek bultzatuta. Ondare Ondasuneko enpresei, izan ere, "ondasunak sortzen duen oztopoa kentzen" laguntzen dien txostena interesatzen zaie. Diruz

⁵ Adostasun handia dago elementu horren garrantziaz; 'ahuleziazat' jotzeari dagokionez, ordea, apenas dagoen adostasunik.

ordaintzen dira txosten horiek. Ordainketan ez da sartzen, ordea, materiala garbitzea, zigilatzea, ordenatzea eta sailkatzea.⁶

- Ez daude elkarrekin ongi koordinatuta erakundeetako sailak. Erakundeen arteko koordinazio hobea behar da, baita erakundeen eta unibertsitate edo ikerkuntza-zentroen artean ere. Ez dago behar hainbateko loturarik kultura eta ikerkuntzaren artean, ezta kulturaren eta hezkuntza/trebakuntzaren artean ere.
- Harreman estuagoak foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, informazio bikoitzik ez sortzeko. Ondare Legea aldatu beharra ekar lezake horrek.
- Aldundiak eta Jaurlaritza bakoitza bere aldetik aritzen direnez, zaila da jarduera-ildo beren kasa jarduten dutenez, zaila da argiak eta bakarrak finkatzea. Izan ere, Jaurlaritzak hartzen dituen erabakiek aldundien erantzunak aintzat hartu beharra dauzkate.
- Arkeologoen artean mesfidantza handia dago, batetik; bestetik, apenas trukutzen duten informaziorik eta daturik.

⁶ Adostasun handia dago elementu horren garrantziaz; 'indartzat' jotzeari dagokionez, ordea, apenas dagoen adostasunik.

AUKERAK

Babesa:

- Legeak berak eskaintzen duen azpiegitura (Ondare Ondasunaren Zentroa) honetarako baliatu behar da:
 - Udalek ere ondarea babesteko.
 - Lurralde-antolamenduan diharduten profesionalek, ingurumen-inpaktuko azterketak egiten dituztenek eta gainerakoek zentroaren helburu eta eginkizunetan parte har dezaten.
 - Herritarrak sentsibilizatzeko iraganeko ondarea zaintzeko premiaz.

JARDUERA-ILDOAK

1. *Politikak eta koordinazioa*

- Ondarea zaintzeko, Ondare Higiezinaren Lurralde Plan Sektoriala (LPS) onartzea, eta udalak bultzatzea zeregin horretan aritzera, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak dira eta.

2. *Gizartea*

- Herritarrei informazioa eta trebakuntza ematea museo eta erakusketen bidez, baita arkeologia-hobietan bertan hainbat dibulgazio-ekintza antolatuz ere.

3. *Giza baliabideak*

4. *Finantziarioa eta inbertsioa*

- Finantziario-bide publikoak erabiltzea ondasun arkeologiko baliotsuak dauden inguruneak erosteko. Eusko Jaurlaritzak zuzenean beregana ditzake leku horiek, edo zeharka, udalei horretan lagunduz.

5. *Enpresa-sarea*

5.1. *Informazioa, legedia*

- Zorrotzago aplikatzea jarduera arkeologiko sistematikoko eta premiazkoen buruzko araudia (EAEko material arkeologiko eta paleontologikoen buruzko araudia, 1999koa), baita materialak aztertu eta argitaratzeko eskatzea ere.

5.2. *Erakunde bultzagileak.*

- Bultzatzea Kultur Ondarearen Zentroaren lana, eta orain artean baino gogo handiagoz ezagutaraztea udalei, lurralde-antolamenduan diharduten profesionalei, azpiegitura-obrak egiten dituzten enpresei eta herritarrei.

6. *Produktua eta euskara*

7. *Balio-katea*

7.1. *Teknologia, I+G*

7.2. *Sorkuntza/Babesa*

7.3. *Produkzioa / Kontserbatzea eta leheneratzea:*

- Bizkortzea Eremu Arkeologikoak sortzeko prozesua. Eremu horietan bildu behar dira jada ofizialak diren arkeologia-hobiak, haien ondarea zaindu, sendotu, leheneratu edo kontserbatzeko.

7.4. *Komertzializazioa/sustapena/Balioestea eta ezagutaraztea:*

- Euskal Arkeologiaren Museo Nazionala sortzea (egoitza, Gipuzkoan, ahal dela), arkeologia-ondarea erabili, behin-behineko erakusketak egin eta gainerako euskal arkeologia-museoekin elkarlanean jarduteko, tokian tokikoekin barne. Batez ere historiaurreko garaiak jorratu behar lituzke Museoak.

6. *Kudeaketa-eredua*

7. *Merkatuaren dinamizazioa eta nazioartekotzea*

- Euskal ondarea Europan erakusteko ahalegin berezia egitea kultur azoka, foro, Europako arkeologia-elkarte ea abarretan. Horrez gain, Ondarea sustatzeko Europako Batzordearen hainbat programatan parte hartzea (CULTURE 2000-n, adibidez).

LEHENTASUNAK

1. Bizkortzea **Eremu Arkeologikoak** sortzeko prozesua. Eremu horietan bildu behar dira jada ofizialak diren arkeologia-hobiak, haien ondarea zaindu, sendotu, leheneratu edo kontserbatzeko.
2. Herritarrei **informazioa eta trebakuntza ematea** museo eta erakusketen bidez, baita arkeologia-hobietan bertan hainbat dibulgazio-ekintza antolatuz ere.
3. **Finantziario-bide publikoak** erabiltzea ondasun arkeologiko baliotsuak dauden inguruneak erosteko. Eusko Jaurlaritzak zuzenean beregana ditzake leku horiek, edo zeharka, udalei horretan lagunduz.
4. Euskal ondarea **European** erakusteko ahalegin berezia egitea kultur azoka, foro, Europako arkeologia-elkarte ea abarretan. Horrez gain, Ondarea sustatzeko Europako Batzordearen hainbat programatan parte hartzea (CULTURE 2000-n, adibidez).
5. Bultzatzea **Kultur Ondarearen Zentroaren** lana, eta orain artean baino gogo handiagoz ezagutaraztea udalei, lurralde-antolamenduan diharduten profesionalei, azpiegitura-obrak egiten dituzten enpresei eta herritarrei.
6. Zorrotzago aplikatzea jarduera arkeologiko sistematiko eta premiazkoei buruzko **araudia** (EAEko material arkeologiko eta paleontologikoei buruzko araudia, 1999koa), baita materialak aztertu eta argitaratzeko eskatzea ere.